

**Galdera:**

Hurrengo zalantza sortu zaigu gaur ikasle talde batekin gelan: *Zu eta biok // Zu, Ander eta hirurok // Zu, Ander, Mikel eta laurok* jartzen al da? Edo, lautik aurrera, jada "eta ni" forma erabiltzen da?

**Erantzuna:****Ez dago muga teorikorik.**

Talde bat zer kidek osatzen duten aipatzeko, bi egitura ditugu euskaraz, bata bestearen ordeztarabil daitezkeenak:

- a) ... **eta zenbatzailea+ok** (kasu honetan, gainera, kopuru zehatza zein den adierazten dugu)
- b) ... **eta lizenordaina**

Adibidez:

Amaia, Itziar, Aitor, Kepa, Batirtze eta bostok = Amaia, Itziar, Aitor, Kepa, Batirtze eta zu

Zu, Irati eta hirurok = Zu, Irati eta ni

Alex, Andoni, Oihana, Iñaki, Hodei, Jule, Jose, Pantxika, Sabin, Peru, Izaskun, Edurne, Patxi eta hamalauok = Alex, Andoni, Oihana, Iñaki, Hodei, Jule, Jose, Pantxika, Sabin, Peru, Izaskun, Edurne, Patxi eta zu

Ikusten denez, zerrenda infinituraino luza daiteke teorian, baina, jakina, eguneroko egoera praktikoetan, ez dugu halako enumerazio luzerik egiten.

Gehiago jakin nahi baduzu, jo Euskaltzaindiko esteka honetara:

[https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com\\_jagonet&task=galdera&Itemid=1716&lang=eu&id=30](https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_jagonet&task=galdera&Itemid=1716&lang=eu&id=30)